# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

## 3259

*EBAZPENA, 2014ko uztailaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2014an diru-laguntzak ematea arautzen eta iragartzen duen Ebazpenaren babesean aurkeztutako eskariak aztertuko dituen Hautaketa Batzordearen osaera argitaratzen duena.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, 2014ko ekainaren 3an, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2014an diru-laguntzak arautzen dituen deialdia egin zuen. Ebazpen hori 2014ko ekainaren 19ko EHAAn argitaratu zen.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den Hautaketa Batzordearen osaera arautzen du aipatutako ebazpenaren 8. artikuluak. Hautaketa Batzordeak arrazoitutako ebazpen-proposamena emango du, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari aurkeztuko dio.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2014an diru-laguntzak ematea arautzen eta iragartzen emango diren diru-laguntzak arautzen dituen deialdiaren Hautaketa Batzordeko kideak izendatzea, eta bere osaera argitaratzea.

Bigarrena.– 2014ko ekainaren 3ko Ebazpenaren 8. artikuluan araututako Hautaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua:

Ana Alberdi Zubia andrea, idazkari nagusia.

b) Batzordekideak:

Juan Carlos Prieto Becerro jauna, Administrazio eta Zerbitzu arloko teknikaria.

M.ª Socorro Álvarez Fernández andrea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko arduraduna.

Sorne Mirari Etxebarria Arrien andrea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko teknikaria.

Irune Lauzirika Jauregi andrea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko teknikaria.

Unay Casado Lataburu jauna, Aholkularitza Juridiko arloko teknikaria, bera ere idazkari lanetan arituko baita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 2a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.